

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3982

AGINDUA, 2015eko irailaren 16koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita zerbitzu-jardueren antolaketaren arloko berrikuntza-proiektuei diru-laguntzak emateko 2015eko ekitaldiko deialdia, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzko urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren babesean (Berriker programa).

Urriaren 7ko 423/2013 Dekretua (2013ko azaroaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 225. zk.) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzkoa da (Berriker programa), eta haren helburua da nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza piztu eta bultzatzeko laguntzen erregimena ezartzea eta arautzea.

Aipatu dekretuaren 10. artikulua xedatzen duenez, urtero, dekretuan ezarritako laguntzetarako deialdia egin eta artikulua horretan jasotzen diren zenbait alderdi zehaztuko dira.

2015eko ekitaldiko une honetan, aipatu dekretuan ezarritako laguntza-lerro bakar baten deialdia egingo da, zehazki V. kapituluaren jasotako lerroarena, hau da, «zerbitzu-jardueren antolaketaren arloko berrikuntza-proiektuetarako laguntzak».

EAEko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.5 artikulua ezartzen duenez, ekitaldi ekonomiko bakoitzean EAEko Aurrekontu Orokorra indarrean jartzen direnean, programen diru-laguntzak emateko arauak eguneratu, berrikusi, edo, hala badagokio, ezarriko dira, eta kasuan kasuko deialdia egingo da bere garaian izaera mugagabez arautu zirenentzat.

Bestalde, abenduaren 23ko 5/2014 Legearen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2015eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartu ziren.

Bada, bi arau horiek aplikatuz, nekazaritzaren, elikaduraren eta arrantzaren sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko zenbait laguntzatarako deialdia egiten da 2015eko ekitaldirako.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da zerbitzu-jardueren antolaketaren arloko berrikuntza-proiektuei laguntzak emateko 2015eko deialdia egitea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren, elikagaien eta arrantzaren sektoreetan ikertzeko, garatzeko eta berritzeko laguntzei buruzko urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren V. kapituluaren babesean (Berriker programa).

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea eta eskabide-eredua.

1.– Urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren V. kapituluaren aurreikusitako laguntzak eskatzeko epea hilabetekoa izango da, eta agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta

biharamuneko 09:00etan hasiko da, eta epea bukatzen den eguneko 15:00etan bukatuko. Eskabideak aurkezteko azken eguna ostirala bada, berriz, 12:00etan bukatuko da.

2.– Hala ere, proiektuen eskabideak epe barruan aurkeztutzat joko dira, baldin eta 2015eko ekitaldian eta deialdi hau argitaratu aurretik aurkeztu badira, urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 8. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrira.

3.– Onartzen da, halaber, V. kapituluan aurreikusitako laguntzak eskatzeko eskabide-eredua. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bulegoetan egongo da eskuragarri eredu horren inprimakia (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), bai eta web-orri honetan ere: <http://www.euskadi.eus>

Hirugarrena.– Gehieneko diru-zuzkidura.

Euskal Autonomia Erkidegoren Aurrekontu Orokorren kargura V. kapituluan aurreikusitako proiektuak finantzatzera bideratutako zuzkidura 75.000 eurokoa izango da gehienez. Horietatik, 30.000 euro 2015. urteko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainontzekoa, berriz, 2016. urteko konpromiso-kredituei.

Laugarrena.– Inbertsioak, proiektuak eta gastuak gauzatzeko epeak.

V. kapituluan aurreikusitako ekintzetarako inbertsioak urtekoak edo urte anitzekoak izan daitezke, eta 2015eko eta 2016ko ekitaldiei dagozkie, betiere urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 16. artikuluko 3. paragrafoan eta 19. artikuluko 4.ean ezarritakoaren kaltetan joan gabe.

Bosgarrena.– Laguntzak baloratzeko eta laguntzak kuantifikatzeko irizpide objektiboak.

V. kapituluan aurreikusitako proiektuak baloratzeko, aintzat hartuko dira urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 11. artikuluko 2. paragrafoan bildutako irizpide guztiak.

Seigarrena.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Laguntzak eskatzen dituztenek, eskabidearekin batera, urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 9. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

2.– Aurreko agiriez gain, laguntza eskatzen dutenek urriaren 7ko 423/2013 Dekretuaren 38. artikuluan aurreikusitako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkez diezaiokete interesdunek Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta biharamunean hasiko dira epeak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 16a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.